


Corner charger

Funtsezko jarduerak

Gure negozioa aurrera eramateko hainbat jarduera eramango ditugu aurrera eta ekintza hauek ez ditugu besteen esku utziko.

Hasteko, ekintza plan bat diseinatuko dugu gure enpresaren egoera aztertu ondoren. Horren ostean, hautatu ditugun langileak antolatuko ditugu. Erabilitako material guztiak zuzen ibiltzea eta hondatuta ez dagoela begiratuko dugu.



Guk egingo ditugun jarduerak diseinuak dira. Adibidez, lokalaren diseinua guk erabakiko dugu, kanpo enpresaren laguntzarik gabe.

Bazkide txartelen diseinua guk erabakiko dugu, nolakoak izango diren erabiltzen diren gauza guztiak ere bai.

Gure lokalen dauden arazo guztiak guk konponduko ditugu, baina beste norbaiten laguntza behar baldin badugu, eskatuko dugu.

Bestalde, aholkularitza norbaitek behar baldin badu teknologiarekin zerikusia duten gauzen bati buruz, gu geu arduratuko gara hortaz. Horretarako korreo elektronikoa edo WhatsApp-a erabiltzeko aukera eskainiko diegu. Hau da, harreman pertsonala edo email-ez bidez izango dira aholkuak.

Bukatzeko, ere bai, ditugun plataformak guk eramango ditugu. Hasieran, ez dugu inor kontratatuko horretarako, plataformetako kontuak eramateko guk geuk arduradunak izango baigara. Baina negozioa aurrera doan heinean, kontuak, plataformak eramateko aditua den pertsona bat kontratatuko dugu.

Sare sozialetan lokalaren publizitatea igoko dugu, zozketak, gure aurkezpena... Hala nola, Instagram-eko eta tik tok-eko kontuetan. Eta gero gure web orrian, lokalari buruzko informazioa ageriko da. Hala nola, lau sortzaileen informazioa, ordutegia, etab.

Hasieran lokalaren garbiketaz gu arduratuko gara, baina diru-sarrerak handitu ahala, diru-sarrera handiak izatean eta denbora luzez egotean enpresarekin, garbiketa zerbitzuetako enpresa bat kontratatuko dugu, bai baitakigu geuk garbiketa egiteak ez diola gure zerbitzuari balio erantsirik emango.

